

B

BARREN

TOKIKOM



Mendaro jaietarako prest

BERRIAren eskutik

Olinpiar Jokoak

Uztailaren 27tik
abuztuaren 12ra

www.berria.info
webgune berezia

Egunero 12 orriko
gehigarria BERRIAN

Zuzeneko
telebista saioa
12:00etan

Prentsaren begiratua · Erreportajeak
Elkarrizketak · Konexioak Londresetik
Umorea · Musika

Eta zu?

Egon al zara inoiz Olinpiar Jokoetan?

Zatoz BERRIAra,
eta konta iezaiguzu zuzenean



Aukera ezazu,
BIZI euskaraz

berria info



Angel
Bazterretxea

Udaren gerrira iristen ari gara, eta beste gauza batzuen artean, geure BARRREN honetan zerbait idaztea tokatzen zaigu. Orain arteko udaldea ez da inolaz ere zoragarria.

Nahiko tristeak dira egualdiaren gorabeherak.

Orain dela urte batzuk, uda oso txarra izan genuen, eguraldi kontutan. Eta gure itsasaldeko herri ba-

tean, Zumaian zehazki, hondartzako taberna bateko arduraduna oso kezkatuta zegoen. Jakina, udaletxeko kontratuari aurre egin behar eta, eguna joan eta eguna etorri, eguraldiak apenas aldate onik izaten zuen. Nahikoa erreta zegoen hondartzako tabernaria. Eta bere pena eta kezak lagun artean komentatzen zituen. Eta haietako lagun batek esan zion: "Bai, ez da benetan gozoa gure uda motz honetan hainbeste egun euritsu izatea. Badakit Udalarik alkilerria ordaindu behar zaiola eta ez edozelakoa, gainera. Garestia benetan. Eta hiru edo lau asteburutan eguraldiak ez badu laguntzen, ez da erreza izango gastuei aurre egitea. Zergatik ez dek egiten, hau?". Eta besteak: "Esan zer egin behar deten". Eta lagunak: "Jarriok pare bat kandela San Telmori, ea horrela eguraldia hobetzen den". Eta gure hondartzako tabernariak honela erantzun dion: "Zer esan dek? SanTelmori pare bat kandela jartzeko? San Telmori kandelak ipini ez, zuri emango nizkizuke pare bat biribil!"

"Ez gaitezen ahaztu santanak eta beste hainbeste herritako jaiak hemen direla"

Eta geuregana etorri, eta zer egin behar dugu, egunetik egunera okertzen dabilen gure inguru kezagarri honetan? Errezatu? Ala behar diren lekuetan zumaiarren erremedioa jarri? Bueno, gauzak horrela daudela, ez gaitezen ahaztu santanak eta beste hainbeste herritako jaiak hemen direla. Horregatik, aurrera, ez garelako inor baino gehiago eta ezta gutxiago ere. Ibili gaitezen, Mutrikun lagun batek esan zidan bezala: isililik eta galamixa gabe, baina geure neurri burutsu batean. Gero arte!



Iñigo
Lazkano

Ñoo! Ondo erreta zagan, bai, zure lagun zumaiarra, herriko santuari holako "erregaluak" ematen ibiltzeko...

Egixa esan, udan ondo sartuta gaude, eta eguraldixak ez digu asko lagundu udako plan tipikuak gauzatzen. Plaia ixa zapaldu ere ez det egin, eta Saturrarango txiringitokuek, nere kontura behintzat, ez debe alkiler haundirik pagau.

Baina, bueno, esperantzia ez degu galduko, Don Angel, eta ia udian bigarren zati honetan eguzkixan konpañiarekin gozatzen degun, eta bide batez, *pa-so zebra* itxura hau aldatzen deten.

Santanetara etorrixaz, aurreko urtekua mejoatzen ez dakagu oso zaila, iaz lau egunetik bostian egin zoan-eta eurixa! A ze nazkau aldixa hartu genduan... Ximel-ximel eginda amaittu genduan, kanpo eta barruak ondo busti genduzen-eta!

Aurten, ostera, santanak oso diferentiak izango dia neretzako. Kalkulo faillo txiki bat egin noan otsaillian eta Gasteizko triatloirako apuntau nitzan. Holako probetan inskripziuak oso goizo betetzen dira, eta argi ibilli bihar da.

"Segurtasun distantzia batera biziko dittut nik aurten santanak"

Hilaren 29xan da Munduko Txapelketia, eta han jungo naiz Landako pantanora, "Isil-isilik, galanixa gabe", zeuk esan bezala.

Izenburu horrek errespetu haundixa ematen dia, eta ondorioz, esfortzu haundi bat egiñez, jaixak segurtasun distantzia batera biziko dittut, nere esku daguan dana eginda ere, nahikua lan izango det-eta. Santanak urtero eukitzen dittugu, baina Munduko Txapelketa bat etxetik hain gertu korritzeko aukeria seguramente bizitzan behin bakarrik izango det. Ezin det tren hori pasatzen laga.

Dana dala, badittut bi edo hiru *sozio* nere lekutxua ondo beteko debenak, eta nere faltia ez da apenas somatuko.

I. URTEURRENA

PAKITA ZUBIAURRE AZPIAZU

2011ko uztailaren 27an hil zen.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, uztailak 28, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.

Joango zaretanoi eskerrak alde zurretik.



Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 744 112

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com


BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**nek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

'Murrizketarik ez! Burujabetza ekonomikoa'. Larunbatean denok Bilbora!

Espainiako Gobernuak euskal herritarren kontra inoiz egindako eraso sozial eta ekonomiko larriena burutu du PPK. Horren aurrean, EH Bilduk, kalera irteten eta mobilizatzeko deia egin nahi dio jendarteari, defendatzeko aukera eskainiko digun gehiengo sozial eta politikoa antolatuz. Batetik, sistema publikoaren eta ongizate estatuaren desegitea gauzatzen du; hau da, krisi sistemiko honen eragile nagusia den munduko finantza eta banka sistema elikatze-ko, babes sistema publiko osoa deuseztatzeko neurriak ezarri ditu. Hau lapurreta da, sakeoa: diru eta babes sistema publikoaren desmantelamendua da. Ez dago beste hitzik bereziki herritar xumeenak, langabetuak, emakumeak, gazteak, pentsiodunak, menpekotasuna dutenak eta langile prekarioak erasotzen dituen hori definitzeko. Bestetik, murrizketa neurrien sokan argi ikusten da PPK bokazio zentralistan sakontzeko politika jarri duela martxan, krisiaren aitzakian. PPK DNAn daukan dena zentralizatzeko asmoa hazi egin da, estatu osoa Moncloatik gidatu nahi duelako, batez ere udalen autonomian eraginez.

Eraso honi aurre egin behar zaio. Gure helburuak gauzatzeko aukera bakarra alderdi politikoen, eragile sozialen eta sindikalen arteko koordinazio lana da; eta batez ere herritarrei protagonismoa ematea. Larunbatean Bilbon egingo dugun manifestaziora joateko autobusa 16:30ean irtengo da Txan-kako zubitik. Eman izena Iturri, Jai Alai edo Iratxon.

EH Bildu ☛

Espainiak hondamendira garamatza, independentzial!

PNVren lehenasuna Urkulluren ahotik krisitik irtetea da, burujabetza bigarren planoan utziz. Ez digute sinestaraziko Espainiaren barruan krisitik ateratzea posible dela, Estatu honek banketxeen aldeko hautua egin du eta horien finantza-gehiagikeriak denon diru publikoarekin ordaintzera doa, jendartearen pobretzea areagotuz, neurri gero eta larriagoekin eta gure aurpegira barre eginez (*que se joda!* dio parlamentari batek). Espainiar estatuak badaki EH Bilduk ordezkatzeko duen ezkerreko soberanismoa gelditzeko, ez PSEK, ez PPK, ez dutela indar nahikorik eta horretarako euren baliabide bakarra EAJ-PNV dela. Horretaz hitz egin zuen Urkulluk Rajorekin Madrilan.

Baina berandu datoz: gero eta gehiago dira Espainian eroso sentitzen ez direnak, Espainiak hon-

damendira garamatzalako. PNVren diskurtsoaren aurrean (krisitik ateratzea burujabetzaren aurretik), herritar askok diogu burujabetza dela krisitik ateratzeko ezinbesteko bidea. Gure politika propioak erabakitzeko aukera badugu soilik irtengo gara zultotik. Rajoyren neurriak aplikatuta laster gara Espainiaren miseria egoeran. Larunbaterako *Murrizketarik ez, Burujabetza ekonomikoa* lelopean EH Bilduk manifestaziora deitu du Bilbon. ELA ez doa. Une honetan bi aukera daude: Espainiarekiko subordinazioa (PNV) ala bide propioa hartzea (EHB), eta ELAk burujabetzaren aldarrikapena ekidin du behin eta berriz, definizio eza eta distantziakidetasuna erabiliz. EHBren deialdia kritikatzeko baino, hobe egingo lukete PNVri mobilizazio honetan parte hartzea eskatzea.

J.Karlos Marcos ☛

Bizi osorako zigorrak ez!!!!

Estrasburgok 197/2006 doktrinaren aurka jakinarazitako ebazpenaren harira Herrirak dio: Espainiako Gobernuari Ines del Rio preso berehala aske utz dezan eskatzen diogu lehenik. Bigarrenik, 197/2006 doktrina bertan behera utzi, eta ondorioz, garaian ezarri zitzaizen kondena bete duten presoak aske uzteko eskatzen diogu. Gaur, 197/2006 doktrina aplikatuta duten presoak: 56 (irteera datakin) + 11 (irteera data gabe) (62-3 errekursoaren ukapenagatik = 59) presoak dute doktrina aplikatuta eta espetxean daude. 4 (zigorra bete gabe) + 12 (zigorra beteta) preso eta preso ohiek dute aplikatua eta kaletan daude (horietako batzuk 100.2 artikuluekin, hots, etxean preso). Guztira: 83.

30 urte espetxean igarotzeak, hau da, bizitza osoa espetxean igarotzeak, ondorio fisiko nahiz psikologiko larriak garatzea dakar. Gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten 14 presoetatik seik 20 urte baino gehiago daramatzate espetxean, eta bost dira 197/2006 doktrina aplikatuta dutenak, eta hau ez da kasualitate hutsa. Baina eragina ez da fisikoa soilik izaten; zure zigorra inolako azalpen juridikorik gabe eta mendeku hutsez kalera atera behar duzunean hamar urtez luzatzeak izugarriko ondorio psikologikoak eragiten ditu. Guri, senideei ere, zigorra luzaten digute. Bizitza osoa, astebururo errepedean jartzera behartzen gaituzte, gure bizitza arriskuan jarritik. Beraz, guk bizi osorako zigorra ahalbidetzen duen doktrina hau derogatzea exijitzen diogu Espainiako Gobernuari. Eta Euskal jendarteari, mobilizatzeko jarrai dezala.

HERRIRA, Herri mugimendua ☛



Jende askok Klaratarren komentu aurrean aparkatzen du autoa: "Komentu aurreko aparkalekua eta bidea autoz beteta egoten da askotan, eta ez dugu jakiten auto horiek norenak diren. Joan zen astean kamioi bat etorri zen komenturako produktuak deskargatzera, baina bidea autoz beteta zegoenez, ezin izan zuen komentura igo, eta bere lana egin gabe itzuli behar izan zuen. Eta ez da lehendabiziko aldia izan. Eskertuko genuke gune horretan aparkatzen duten auto jabe-ei euren telefonoa emateko komentuan. Horrela, autoa mugitu beharra balego, mojek jakingo lukete nori deitu. Eskerrik asko".



Plaza Txikiko edukiontziak zaborrez gainezka egoten dira: "Azken asteotan behin eta berriz errepikatzen den egoera bat da ondorengoa: zaborra botatzera joaten naiz Plaza Txikira, eta edukiontziak beteta egoten dira. Ez dakit zein den arazoa. Pedro Migel Urruzunoko obren ondorioz kamioia agian ezingo da pasatu, baina nola edo hala, edukiontzi horiek sarriago hustu behar dira".

Ermuaranbide kaleko lantegien aurrean aparkatzen duten kamioiek traba handia egiten dute: "Ermuaranbide kalean lantegi asko daude, eta lantegi horietara etortzen diren kamioiek errepidean aparkatzen dute. Kamioi horiek traba handia egiten dute, eta askotan, kontrako norantzako bidetik joan behar izaten dugu auto gidariok. Ingurune horretan errebuelta itxi bat dago, eta oso arriskutsua da kontrako norabidean ibiltzea. Badakigu irtenbidea ez dela erraza, baina konponbideren bat bilatzea eskertuko genuke".

Maalako haur parkean jendeak erre egiten du: "Maalako haur parkea umeentzako gunea da, eta legearen arabera, ezin daiteke erre. Hala ere, jende heldu askok erre egiten du, eta ez zait ondo iruditzen. Legeak bete egin behar dira, eta guraso horiei eskatzen diet umeen aurrean ez dezatela erre. Mila esker".

Pedro Migel Urruzuno kalea itxita dagoenetik autoak San Frantzisko kaletik pasatzen dira: "Badakigu Pedro Migel Urruzuno kalea itxita dagoela, baina ez zaigu ondo iruditzen autoak San Frantzisko kaletik ibiltzea. Goizeko orduetan ulertu dezakegu, baina arratsaldean oinezkoentzako gunea izan behar da kalea. Ume eta heldu asko ibiltzen dira arratsaldetan kalean, eta ez da eroso auto artean ibiltzea".



Zuon kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.com / 943-741 626

BADATUZ SANBARTOLOMEAK!

**Publizitatea jartzeko:
943 744 112**

barren.publi@elgoibarkoizarra.com



Hasita daude Iñigez Karkizao kalea eta Elgoibar Ikastola ingurua urbanizatzeko lanak

Ikastola inguruko aparkalekua handitu eta Karkizaoko trazatua berrituko dute

Aste honetan hasi dituzte ikastola ingurua berrantolatzeko lanak, eta baita Karkizao kalea urbanizatzeko lanak ere. Ikastola ingurua berrantolatzeko lanen barruan, bi lan nagusi aurreikusten dituzte: batetik, inguru horretan dagoen bihurgunea edo *chicane*-a kenduko dute, eta bestetik, aparkalekuak bikoiztuko dituzte. Gaur egun, hamabost ibilgailurentzako lekua dago, eta lanak bukatutakoan, 35 bat sartuko dira. Obra hori Echaide Eraikuntzak S.A. enpresari esleitu zitzaion, eta 109.272,70 euroko aurrekontua dute. Obra Udalak finantzatuko du oso-osoan, eta irailaren hasiera alderako amaituta egongo dela aurreratu dute.

Iñigez Karkizaoko lanak, berriz, astelehenean hasi zituzten, eta ondo bidean, azaroaren 15erako bukatuko dituztela jakinarazi du Udalak. Obra Obegisa S.A. enpresari esleitu zitzaion eta finantzazioa pribatua da, Urruzuno sektorearen urbanizazioak bere gain hartu duelako.



Infografía

Kale horretako trazatua berritu eta inguru horretako trafikoaren joan-etorria arintzea izango da lan horien helburu nagusia. Orain arte oinezkoek bakarrik erabiltzen zuten kale zati hori, baina orain bide hori berritu egingo dute, eta aurrerantzean ibilgailuak igaro ahal izango dira handik. Obra horretan, gaur egun kale hori eta Pedro Muguruza kalea lotzen dituen lurrazpiko pasabidearen ordez, beste pasabide bat eraikiko dute. Aurreikusitako lanen barruan, era berean, euri uren sarea, argiak eta zorua ere berrituko dituzte.



Infografía

Doimakek sekula egin duen artezteko makina handiena, Alemaniara



Doimak enpresa txikia da (Sallobenete-Ermuaranbiden dago), 30 langile baino ez ditu-eta, baina dituen erronkak eta asmoak handiak dira. Horren lekuko da Alemaniara salduko duten artezteko makina erraldoia. Sekula egin duten makinarik handiena da: hemeretzi metro luze eta lau metro zabal da, eta 80 tonako pisua du. Astelehenean, makinaren gaineko zehaztasun guztiak eta krisiari aurre egiteko dituzten asmoen berri eman zion BARRENI Tomas Mugerzak, eta www.elgoibarren.net webgunean daukazue bideoa ikusteko.

Lekua **Altzola**



Aste honetan hasi dituzte Altzolako obrak. Lan horiek 2011ko urte amaieran egiteko asmoa zeukan Foru Adundiak, baina Ur Agentziak Elgoibar eta Mendaro artean saneamendua hobetzeko hodi biltzaileak jarri behar zituela-eta, obrak atzeratu egin dira. Altzolako zeharbideko lanekin oinezkoen eta auto gidarien segurtasuna hobetu nahi dute, eta horretarako, besteak beste, honakoak jarriko dituzte errepidean: espaloiak, zebrabideak, ibilgailuen abiadura murriztuko duten gailuak edo tresnak, eta autobusak gelditzeko zabalguneak.

Webgunea **'www.baserrikoa.com'**

Debemen elkarteak *www.baserrikoa.com* webgunea aurkeztu du. Baserriko produktuak merkaturatzeko bide laburrak bultzatu nahi dituzte proiektu honekin, eta horretarako bi lan ildo jarraitu dituzte: salmenta puntuen egokitzapena eta web orrialdea. Ardurdunen arabera, egungo bizimoduak ez du bat egiten azoketako ordutegiarekin, eta gainera, jendeak gero eta gehiago egiten ditu erosketak Internetez. Hori guztia kontuan hartuta jarri dute martxan egitasmoa. Webgune horretan eskualdean salmenta zuzena egiten ari diren baserriar guztien erreferentzia jaso dute, eta nahi duenak erosketak online egiteko aukera ere izango du, orrialdean bertan dauden loturen bidez. Horretaz gain, azoka eta merkatu guztien inguruko informazioa jaso dute, baita azoketan antolatzen diren tailerren ingurukoa ere. Era berean, garaiari garaioko produktuen egutegia, errezetak, landa auzoetako jaiak, ibilbide gastronomikoak... aipatzen dituzte.



Hileta zibilen gaia Osoko Bilkurara eraman du Bilduk

Elgoibarren hileta zibilak arautzeko ordenantza aurkezteko zuen atzo arratsaldean Bilduk Osoko Bilkuran. Estatu akonfesional edo laikoan pertsonen eta komunitateen askatasun ideologikoa, erlijiosoa eta gurtzekoa bermatzea erakundeei dagokiela gogorarazi du Bilduk, eta hileta zibilak egitea eskaera sozial bat dela, "beharrezkoa delako pertsona bakoitzari bere printzipioekin bat datorren ospakizun duina eskaintzea". Ordenantza horren bidez, Elgoibarren hileta zibilak egiteko espazio publikoen erabilera arautu nahi ditu.

Udalak Gazte Asanbladari tratu berezia ematen diola salatu du PPK

Javier Nuñez PPKo zinegotziak salatu du Elgoibarko Udalak tratu berezia ematen diola Gazte Asanbladari, "legez kanpoko egoera batean egon arren". "Lokal bat uzteko Udalak gainerako erakunde guztiei baldintza bartzuk eskatzen badie, zergatik ez du berdin jokatzeko Gazte Asanbladarekin?. Alderdi Popularrak ez dauka ezer Gazte Asanbladaren kontra eta ezta Gaztetxearen kontra ere, baina herritar guztiek tratu bera merezi dute", esan du.

Boto nagusiak hartuko ditu Julia Da Rocha klaratarrak

Julia Da Rocha Elgoibarko klaratarren ordenako mojak Boto Nagusiak egingo ditu, datorren zapatuan, hilaren 21ean, 17:30ean. Komentutik dei egin diete herritarrei ospakizun horretan parte hartzera.



Erretratu zaharra



Aste honetako erretratu zaharra Arriagako auzotar batek ekarri du BARRENERA. Ez daki zein urtetako argazkia den, baina bistan da urte mordoska bat badituela erretratuak. Arriagan ermita zegoen garaikoa da argazkia. Garai hartan prozesioa egiten zen irailaren 2an, San Antolin egunean, eta auzotarrak dotore irteten ziren zaindariaren atzetik. Autopista egiteko bota zuten ermita, eta orduan galdu zen prozesioa egiteko ohitura. Ikus dezagun zeintzuk diren erretratuan azaltzen direnak:

Ezkerretik eskumara: Jesus Mari Barrenetxea, Antonio Etxabe, Juan Jose 'Muniola' (farolduna), Manolo Iriondo, Jose Luis 'Karkizao' (farolduna) eta Joseba Etxabe.



I. URTEURRENA

MERTXE BERISTAIN ALDALUR

Ramon Elorzaren alarguna

2011ko uztailaren 24an hil zen, 90 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, uztailak 21, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian. Joango zaretanoi eskerrak alde z aurretik.



VI. URTEURRENA

IÑAKI CONTRERAS DE CASTRO

2006ko uztailaren 20an hil zen.

*Ez agurrik,
ez adiorik,
gero arte bakarrik.*

Elgoibarko koadrila



Aitor Motriko

Mendaroko Abesbatzako zuzendaria

Mendaroko Abesbatzak hasiko ditu aurten santanak. Aitor Motriko zuzendariak zehaztu du oraindik ez dutela erabaki nork zer esan, baina gustura hartu dute gonbita.

“Ohore handia da guretzat jaien hasierako suziria piztea”

Zuei egokitu zaizue aurten santanei hasiera ematea. Zer esan nahi du zuentzat horrek? Ohore handi bat da. Txarangan ibili nintzeanean ere izan genuen aukera hori, baina hala ere, polita da. Egia esan, hunkigarria ere bada. Oraindik ez dugu erabaki zeinek piztuko duen suziria, edo zeinek hitz egingo duen eta zer esango duen abesbatza osoaren izenean.

Abesbatza bat zarete, eta ez al zarete animatzen ondoen egiten duzuen hori egitera, abestera, alegia?

Nik neuk ez daukat arazorik, baina egia esan ez da hain erraza han aire librean abestea. Momentuz ez daukagu ezer prestatuta. Garai batean Salbea abesten zenean, eta zuzendari Agustin Berasaluze genuenean, *Festara* kantua abesten genuen, baina laga genion horri, eta orain berriz hasteko entsegu batzuk egin beharko genituzke. Nik buruan badaukat egia esan zezozertxo bat, baina oraindik ez dut besteekin konpartitu. Ni mutrikuarra naiz, eta alde horretatik iruditzen zait polita litzatekeela *Aitorren hizkuntza zaharra* kantako ahapaldi edo bertso batzuk abestea. Ziriako Andonegi mutrikuarrak konposatu zuen abesti hori eta berea da letra ere, eta iruditzen zait urteurren hori aitzakia polita dela kanturako. Nik proposamena egingo diet eta ikusiko dugu zer erabakitzen dugun.

Ez duzue zehaztu oraindik zeinek piztuko duen suziria eta ezta nork hitz egingo duen ere, baina zeuri egokituko balitzaizu lan ho-

ri zer esango zenieke mendaroarrei?

Jaiez behar bezala, disfrutatzeko esango nieke mendaroar guztiei. Ospatu ditzatela santanak giro onean, lagun giroan. Eta betiko oihuak ere egin beharko nituzke, jakina: Gora santanak!, gora Mendaro!, eta gora gure Euskal Herria. Gutxien-gutxienez hori esan beharko genuke, ala?

Zein da zure egunik gustukoena? nola bizi dituzu santanak?

Nik esango nuke Santana eguna bera dela egunik ederra. Goizean goiz hasi eta iluntzera arte egoten den jai giro sano hori asko gustatzen zait. Baina baita bezpera eguna ere. Nagusien danborrada oso gustukoa dut, bizi dut danborrada, eta irudi-

tzen zait gainerako herritarrek ere estimatzen duten ekitaldia dela. Jende asko baten da, eta urtero-urtero errepikatzen den ekitaldia izan arren, esango nuke oso hunkigarria dela, batez ere Mendaroko martxa jotzen den ueña.

Zer kantu lotzen duzu zuk santanekin?

Galdera zaila da. Kantu asko egongo dira egokiak, baina bat aipatzekotan Mendaroko martxa aipatuko nuke nik neuk. Herri guztiek dute berea, eta Mendarok ere badi, eta nik uste dut herritarrek erraz konektatzen dutela kantu horrekin.

Abesbatza, artxiboko argazkian.



Sorginduta datoz santanak



Alarabi begi eta hanka bakarrek pertsonaia mitologikoaren eskutik hasi eta bukatu dituzte Markinan Karmen jaiak, eta Kortxeleko mamuak lagun hartuta iritsiko da beste urte bat gehiagoz Leokadi Ondarrura, andramaixetan. Bada, Mendarok ere izango du aurten jaiei hasiera emango dien panpina: Katasorgina. Katua eta sorgin arteko zerbait da katasorgina, pertsonaia magikoa, beraz ez dadila inor asaldatu, aurtengo santanak sorginduta baldin badatoz.

Sorgin tankerako pertsonaien mitoa oso zabaldua dago Euskal Herrian. Bergaran, esate baterako, badira hogeita hamar urtetik gora Bitorianatxo izeneko aztia Mendekoste jaietan agertzen dela (1981. urtean jaitsi zen lehenengoz Seminariotik udaletxeko balkoira). Agertu bakarrik ez, alkatearen lekua hartu ohi du Bitorianatxok jaiak irauten duten denboran, eta azkeneko egunean lehenengo egunean egin ohi duen alderantzizko bidea egiten du, udaletxeko balkoitik Seminarioko teilaturainokoa. Halaxe amaitzen dira jaiak han. Kondairak dio Bergarako Mozolotegi baserrian bizi izan zela Bitorianatxo orain ehun bat urte, bakartia eta xelebrea zela eta sendabelarren gaineko ezagutza handia zuela. Baina sorginen kontu hau ez da Bergarara mugatzen, esan bezala. Nafarroan, Baztan inguruan ere, beste adibide asko topa genitzake, eta mundu zabalean ere mito analogoak oso arruntak dira.

Eta Mendaroko Katasorginak ere badu bere istorioa,



jakina. Jose Miguel Barandiaranek Sasiolako Simon Ansolari 1925. urtean entzundako kondaira bat dauka jasota bere idatzietan. Kondaira horrek dio Lizundia baserrian agertu ohi zela gauez, baserriko bertako emakumeak artilea goruan iruten jartzen ziren baikoitzean. Eta agertzen zen aldiro bazterrak nahasteari ekiten ei zion katuak. Hori ikusita, emakume haiek etxeko gizonari jakinarazi ei zioten, eta birritan pentsatu gabe, emakume arropak jantzi eta han jarri ei zen gizona gauez, artilea iruten. Eta han agertu ei zitzaion katasorgina. “Bizarra eta golutan?” galdetu omen zion katuak etxeko gizonari, eta “katua eta berbetan?” erantzun ei zion hark, hanketatik heldu eta hormaren kontra botaz. Ez zen han amaitu kontua, hala ere. Izan ere, biharamonean, Mendaroko Sillerueneko emakume edadetu bat besoa hautsita zuela esnatu ei zen [Garai batean Arboleta taberna zegoen lekuan zegoen kokatua Sillerueneko etxea, Garagartzan].

Jose Miguel Barandiaranek ez ezik Peña Santiagok ere aipatzen du katu bihurtzen den sorginaren kondaira. Era berean, Alain

Ulaziak dio Aran Errekako baserrietan, Etunpekoetan eta Bustinballekoetan ere kontatzen zela ipuin hau, hango edadetuei behin baino gehiagoetan entzun izan die-la-eta.

Eta katu itxurako sorgin hori da, hain justu ere, aurten santana jaietan herrira agertuko dena. “Santana jaietara ukitu berezia eman nahi genien. Azkeneko eguna tristea izan ohi zela-eta egun hori nola edo hala jantzi egin behar genuela pentsatu genuen. Guk ere nahi genuen Leokadi bat, eta herriarekin lotura izan zezakeen pertsonaiaren baten bila hasi ginen”, adierazi du Jurdan Ezenarro jai batzordeko kideak. “Izan zitekeen Txokolo, herriko umeek ezaguna dutelako, edota motxaila bat, Mendaroko historiarekin lotura estua dutelako motxailak, baina Alainei [Ulazia] ekarritako Katasorginarena kondaira polita iruditu zitzaigun denoi”, gehitu du Sonia Garcia alkateak. Eta hala-ere, Katasorgin horri gorputza ematen jardun du azkeneko egunotan taldetxo batek, udaletxeko sotoan. Paula Erasek egin du diseinua, eta besteak beste, Anparo Txurrukak, Lurdes eta Kontxi Urainek eta Sonia berak jardun dute panpina egiten.

Santio egunean agertuko da herria Katasorgina, nagusien danborrada bukatu bezain laster. Bergarako Bitorianaxoren edota Gasteizko Zeledonon antzera, goitik behera jaitsiko da, eta bost egunez atzera eta aurrera ibiliko da Mendaron, gauez, ilunetan eta isilpean, sorginek egin ohi duten tankeran. Jaien amaiera arte ez da berriz jende aurrera agertuko katasorgina, baina mendarorrek igarriko dute haren magia. Edozer gerta daiteke santanetan.

Santio egunean agertuko da herria Katasorgina, nagusien danborrada bukatu bezain laster. Bergarako Bitorianaxoren edota Gasteizko Zeledonon antzera, goitik behera jaitsiko da, eta bost egunez atzera eta aurrera ibiliko da Mendaron, gauez, ilunetan eta isilpean, sorginek egin ohi duten tankeran. Jaien amaiera arte ez da berriz jende aurrera agertuko katasorgina, baina mendarorrek igarriko dute haren magia. Edozer gerta daiteke santanetan.

Aitzol Urain Bidaburuk Katasorginari jarritako koplak:

Gauez katu bihurtzen da egunez andrea dena horixe da Katasorgin santanetan datorrena

Gauez etxeko lehioan ai zeinen katu gaiztoa etxeko ama beldurtuz lagatzen du arrastoa

Lehiora hurbildu eta andra bat beti lanean ama hola egoten da semea etxeratzean

Gau baten gizona jarri eta jo zuen katua goizez azaldu zelarik non zegoen pekatua

Hankan harrapatu zuen bidaliaz zaurituta goizez andra agertu zanta besoa apurtuta

Istoria harturik santanetan denok gauez katu izan eta egunez, berriz, sorgin

Parrandan denok afana inor ez degu makala goizean buruko mina Katasorginak bezala

Santanetan ibiliaz gure buruaren jabe goizean jaikiko gera besorik apurtu gabe

Koplatan esandakoak kontutan hartu ditzagun aukera aparta da ta gozatu egunez egun

Barandiaranen eta Peña Santiagoren idatzietan agertzen da Katasorgina

ZIZTU BIZIAN

Goitibehera jaitsiera antolatu dute aurten santanetako egitarauaren barruan. Koadrilen Egunean izango da, Azpilgoetako eliza paretik Arrats taberna ingurura arte, sasoi batean egin zen bezala. Aurretik, 11:00etan, koadrilek udaletxeko plazan erakutsiko dituzte euren goitibeherak.

Ainara Argoitia



Hogei urte joan dira Mendaroko santanen barruan azkeneko goitibehera jaitsiera egin zutela, baina orduko arrakasta gogoan, aurten berriro antolatzea erabaki du Udalak. Hilaren 28an egingo da, koadrilen egunean, Azpilgoetako elizatik behera. Orain hogei urteko jaitsiera hartan parte hartu zuten guztiak bat datoz ordukoa egun handia izan zela esatean, eta oroimena zein lausotuta duten ikusita, bistan da parranda egun ona izan zela.

Guruzpekoen trenak jaso zuen goitibehera originalenaren saria azkeneko aldian

Inork ez dauka garbi zenbat koadrilek parte hartu zuten, baina bai demaseko parte-hartzea izan zela Guruzpe kultur elkarteak egun horretarako antolatu zituen ekitaldi guztietan. "Sekulako eguna izan zen. Paella lehiaketa antolatu zuten, eta playback lehiaketa ere egin zen. Gogoan daukat goizaldera, 6:00ak aldera, txokolatada ere egin zela, eta goizean zezenak ere egon zirela. Gaupasa eguna izan zen, eta hurrengo goizean, 9:00etan, dantza eta dantza ari ginen oraindik frontoian", gogoratu du Alaitz Vivesek. "Amnesia antzeko bat daukat. Pintzelada batzuk gogoratzen ditut, baina

ezer gutxi. Parranda egun demasa izan zen, hori bai", dio Andoni Egañak ere.

Guruzpe elkarteko zuzendaritzakoek euren egin zuten goitibeheran jaitsi zen Andoni. "Ez naiz ni abiadura handien zalea, eta ez daukat gogoan, baina esango nuke frenoari helduta jaitsi ginela gu. Goitibehera azkarra egitera baino gehiago goitibehera dotorea egitera joan ginen, eta dotorea irten zitzagun, bai", gogoratu du. Tren luze bat egin zuten, lokomotora bat eta bi bagoitakoa. Bigarrenean jaitsi zen bera, Aitzol Ezenarro eta Arrate Iriondorekin batera. "Gogoan daukat bidean urez betetako globoak ere bota zizkigutela eta haserre amaitu nuela", dio barrez. Joseba Olazabalen etxean jardun zuten egunetan trena atontzen, *Granjan*. Aitzol Ezenarro koadrilakoa arotza izanda, berak hartu zuen goitibehera diseinatu eta lanik handienak egiteko ardura, eta haren agindutara jardun zuen lanean koadrila oso batek. Joseba Olazabal, Miren Vives, Alfredo Belda, Andoni Egaña, Arrate Iriondo... Azkenak gelditu ziren, baina originaltasunaren saria jaso zuten, eta "gustura".

Motxailen gurdia

Saririk ez zuten irabazi, baina Los Lucky-tarrak ere originalak izan zirela inork gutxiak ja





rriko du zalantzan. Ipar Ameriketako mendebaldera artzai joandakoek etxetat erabili ohi zituzten gurdien antzeko goitibehera egin zuten Los Lucky koadrilakoek; Pedro Iriondo *Irabaneta*, Luis Salgado, Haritz Astorki eta konpainiak. Motxailen gurdia zela zehaztu du Pedro *Irabanetak*, baina Mendebalde urruneko gurdien trazako zerbait gogoratzen dute espaloian begira izan zituztenek. Olan zuri bat jarri zioten gaineko aldean goitibeherari, eta ahuntz bat lotu atzeko aldean. "Hiru metro luze izango zituen, eta hamar lagun jaitsi ginen han: koadrila osoa eta ahuntz bat. Bai, bai, ahuntz bat, lau hankakoa", dio Pedrok. 17-18 urte zituzten orduan Los Lucky-tarrek, eta Azpilgoetako elizatik Arrats taberna pare-rako bidean estuasun txikiren bat edo beste izan zutela adierazi dute. "Estankoko leihotik barrura sartu ez ginenean, pozik", aitortu du Pedrok berak.

Gehiago arriskatu zutenak ere izan ziren, hala ere. Transpalet batean jaitsi ziren Oihana Tarragual, Edu Zubiaurre eta Aitor Urbizu *Errebiro*. Aitor da hiruretan zaharrena, eta artean beste biek gidabaimenik ez zutenek, Aitorren autoan ekarri zuten transpaleta Elgoibartik. "Ez galdetu nola batu ginen gu hirurok, baina hantxe jaitsi ginen, bolantea aldebess jarrita. Sustorik izan ote genuen galdezten didazu? Hainbeste izan ditut, ez naizela

denetaz gogoratzen", bota du Eduk bat-batean. Enekoitz Lazarobasterrek lagundu digu orduko irudia osatzen. "Emeterio parean dagoen iturgintza dendako eskaparatean barrura sartu ziren ia-ia, eta hantxe gelditu ziren. Gero, berriz, behin goitibehera jaitsiera amaituta, gogoan daukat Intxarbakuntzan behera jaitsi zirela trasto hartan Aitor eta Edu. Lepoa apurtu ez zutenean...".

Motxailen gurdi bat egin zuten Los Lucky koadrilakoek, eta ahuntz eta guzti jaitsi ziren

Enekoitzek berak ere parte hartu zuen, Joseba Mendikuterekin batera. 12 bat urte zituzten, eta inork ez du konfirmatzerik izan, baina baliteke parte hartu zutenetatik gazteenak eurek izatea. Biko goitibeherak gehiago ere izan ziren, hala ere. Errodamendu zahar batzuk eta bi ohol zatiren gainean jaitsi ziren, esate baterako, Andoni Iriondo *Kuku* eta Enez Ezenarro. "Gure etxean egin genuen goitibehera, Lasalderen [Lasalde Ederra]. Gu oso gazteak ginen orduan. 13-14 bat ur-

te izango genituen, eta uste dut nire aitak la-gundu zigula direkzioa-eta egiten, baina gainerako guztia geuk egin genuen", esan du Andonik. Goitibehera "profesionalagoak" ere izan ziren, hala ere. Elgoibartik ekarritako goitibehera batean jaitsi ziren Jon Ander Urbietta eta Gorka Zabala, abiada bizian. Guruzpe kultur elkartekoen idatzi eta karpetak galdu dira, tamalez, baina galdekatutako gehienek uste dute Jon Ander Urbietta eta Gorka Zabalak eta Gaizka Lazarobaster eta Unai Kanalak aurkeztu zutena izan zirela parte hartu zuten goitibehera guztien artean bi azkarrenak.

Gaizkaren aita Agustin Lazarobasterrek Torre baserrian zeukan garajearen eraiki zuten euren goitibehera Gaizkak eta Unai. "Egia esan, Gaizkaren aitak, Agustinek, egin zigun goitibehera oso-osoan; gu bazterrak nahastera baino ez ginen joaten hara", aitortu du Unai Kanalaetxerriak. Edozelan ere, eta argazkian ikus daitekeen bezala, bizi jaitsi ziren biak, Gaizka aurrean eta Unai atzean. "Ez naiz gauza askotaz akordatzen, baina geuk irabazi genuela behintzat gogoratzen naiz. Goitibeherak ikustera joan zirenek urez betetako globoak jaurti zizkigutela gogoan daukat, eta haretzek izan ziren jaso genituen golpe bakarrak", gehitu du.

Argazkiak badaude, eta astia ere bai, duela hogeitun urte egin zituztenak ikusi, ideiak hartu, ahal denean hobetu, eta zapaturako goitibehera lehiakorra egiteko.

MENDARO

ALBERTO

Arraindegiaz

Telf.: 943 03 36 22 • Mugikorra: 600 44 02 55

e1 electricidad PEROSANZ

www.electricidadperosanz.com
perosanz@euskalnet.net

Ibargain 17, AC behea
 Tel.: 943 202 268
 Faxa: 943 208 045
 20600 EIBAR

Herriko Enparantza 5
 Tel.: 943 033 535
 Faxa: 943 031 718
 20850 MENDARO

DJ Bull

Koadrilen eguneko gaua girotuko du DJ Bullek, eta herritarrak dantzan jarriko ditu. Tolosako Raku tabernan hasi zen musika jartzen 16 bat urte zituela, eta orduetik, plazarik plaza dabil. Herri txikiak nahiago dituela aitortu du, eta Mendarora etortzeko gogoz dago.

Ainhoa Andonegi



“Mendaro dantzan jartzera etorriko naiz”

Noiz eta nola hasi zinen DJ munduan?

Musika betidanik gustatu izan zait, eta 16-18 urte nituela tabernetan sartzen nintzen musika apur bat jartzera eta grabazio batzuk egitera. Baina DJ lanetan orain dela zortzi urte hasi nintzen. Orduan hasi ziren beste batzuk ere DJ lanetan, eta lagunek animatu ninduten mundu horretan sartzera.

Zein da DJ baten lana?

Aukera desberdinak daude. Batzuentzat diskoekin eta musikarekin jolastea da DJaren lana. Nik ez dut hori egiten, ni disko jartzailea naiz. Musika jarri eta jendea dantzan jartzea da nire lana.

Eta horretarako edozein musikak balio du?

DJ bakoitzaren sormena sartzen da hor. Publikoaren araberako musika jarri behar du, eta momentu bakoitzean zein musika jarri behar den jakitea oso garrantzitsua da. DJ batzuk etxetik prestatuta eramaten dute abestien zerrenda eta, asko jota, lau edo bost abesti aldatzen dituzte. Nik momentuan prestatzen dut, abestiz abesti joaten naiz eta jendearen eskaerak kontuan hartzen ditut. Eskatutako guztia ez dut jartzen, baina saiatzen naiz eskariak errespetatzen. Euskal musika jartzen ari naizenean, norbaitek reggae-

ton bat eskatzen badit, ez dut une horretan jartzen, baina estiloz aldatzean gogoratzen naiz eskatu didaten hura jartzen.

DJjak mikrofonoarekin “speaker” lanak ere egiten ditu. Zer moduz moldatzen zara horretan?

Ez zait gustatzen eta ez naiz eroso sentitzen. Batzuk badute horretarako gaitasuna, baina nik nahiago dut musika jarri eta jendea dantzan jartzea. Euskal Herrian ez da erraza jendea dantzan jartzea, eta hori lortzen badut, ni pozik.

Zergatik DJ Bull?

AEK egun batean Atarrabin nengoan lagunekin, ilea moztu berri eta erabat burusoil. Gaur hartan modan zegoen *Juzgado de Guardia* telesaila, eta han irteten zen Bull izeneko beste burusoil bat. Musika jartzen hasi nintzenean jendea Bull deika hasi zitzaidan, eta horrelaxe geratu nintzen izen horrekin.

Nolako publikoa batzen da DJ festetan?

DJ Bull publiko zehatz bati gustatzen zaio. Ezezaguna naizen toki batean DJ Bull agertzen bada egitarauan, edonor joango da ikustera. Baina ezagutzen nauten tokietan publiko oso zehatza etortzen da. Ni ez naiz house edo musika elektronikozalea eta saia-

zaten naiz horrelakoak ez jartzen. Euskal musika jartzen dut gehienbat, eta Manu Chao estiloko musika mestizoa ere gustatzen zait.

DJ izatea ofizioa ala afizioa da zuretzat?

Afizio moduan hartu nuen hasieran, orain dela zortzi urte, eta ez nuen espero hainbeste saio emango nituenik. Gidabaimenik ere ez neukan!

Herri txikietan ala handietan sentitzen zara hobeto?

Herri txikietan. Publikoa sanoagoa da, nobleagoa, naturalagoa. Hiri handietan denetarik dago. Jende jatorra ere bai, baina bestelakoa ere bai. Herri txikietan jende gutxiago egoten den arren, denak parranda eta dantzarako gogoz egoten dira. Hori da politena, jendea festarako gogoz egotea kontzertuetan, dela DJ Bull edo Rolling Stones entzuten.

Zer eskainiko duzu Mendarora?

Gogo handiz noa Mendarora. Beste urteren baten ere deitu izan didate, eta ezin izan naiz joan, eta gogoz nago. Mendaro dantzan jartzera etorriko naiz. Mendaroarren bat ezagutzen dut, eta ondo konektatuko dugula uste dut. Elgoibarren ere hiru urtetan izan naiz, eta harrera ona izan dut.





*Mendaroko Udalak
Santana jai zoriontsuak opa dizkizue.*



**Ezenako
Arotzenixia**

Linazasoro, 7
Mendaro

Tel.: 653 707 837

• Poligono Kurutz-gain, 9 A • 20850 MENDARO
• Tel.: 943 756 112 • Faxa: 943 755 085
• Mugikorra: 638 497 485
• e-posta: iraoIagoitia@iraoIagoitia.com

AZIBAR IRAOLAGOITIA GALLASTEGI

Ondo pasa jaiak!!

IRAOLA
arotz lanak



KONPONKETA, BIRMOLDAKETA ETA
CNC^{en} AUTOMATIZAZIOA,
ERREKIMTA MAKINA, BERRIA ETA
BIGARREN ESKUKOAREN SALMENTA.



SANTOS Y PATXI SERVICIO TECNICO S.L.

ESSER Industrialea SE-S • 20850 Mendaro (Gipuzkoa)
Tel.: 943 741 658 / 639 710 165 • Faxa: 943 742 346
www.santospaxi.com • comercial@santospaxi.com



Liburuak, papera, menajea, opariak...

Tel.: 943 033 631
Faxa: 943 755 235
E-posta: morroskillo@hotmail.com
Herriko Enparantza, 18
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

Ondo pasa jaietan!

PAGOERROTA
iturgintza




- Iturgintza
- Gasa
- Berogailuak
- Sukalde eta bainuen proiektuak
- Igeltseritza

Herriko Enparantza, 10 behea (MENDARO)
Tel.: 943 756 044 - Faxa: 943 756 037 - Mugikorra: 659 334 323
www.pagoerrotaiturgintza.com
pagoerrotaiturgintza@pagoerrotaiturgintza.com

**Arriola
Aroztegia**



Garagartza kalea, 44
Telf.: 629 258 172
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

LEIRE JANTZIDENDA





Azpilgoeta, 24
Tfnoa. 943033629
leirejantzidenda@euskaltel.net

Santanetako aurtengo nobedadeak

Nobedade batzuk badira aurtengo santanetako egitarauan. Nagusienak bi: Katasorgiñaren jaitsiera, jaietako lehenengo egunean, eta goitibehera jaitsiera, Koadrilen egunean. Baina, egunez egun, badira gehiago ere. Hona hemen, nobedade nagusien laburpen txiki bat.

UZTAILAK 26: SANTANA EGUNA



Egun osoko jaia izaten da Santana eguna, eta benetan estimatua dute egun hau mendarorrek. Askorentzat egunik herrikoiena eta osoena da, nahiz egitarauan apenas egon den aldaketarik azkeneko urteotan. Ohi bezala, Santa Ana ermita bueltan hasiko dute eguna. Ostolaza eta Andonegi trikitilariak eta Sebastian Lizaso eta Andoni Egañak girotuko dute meza ostea. Ondoren, tabernetarako bidea hartuko dute denek elkarrekin. Luze joango da bazkaldu artekoa. Arratsaldean, 18:00etan, herri kirolak izango dira, punta-puntako partaidetzarekin. Aurtengo nobedadea, baina, beste bat da. Aurten, herri afaria antolatu dute-eta Santana egunerako. Frontoian egingo da. Sarrerak salgai egon dira herriko tabernetan.

UZTAILAK 27: UMEEN EGUNA

Umeen eguna da, beharbada, iaiztik hona gehien aldatu dena. Aurreko urteetan haur danborrada izan da egun honetako ekitaldi nagusia, eta aurten ere izango da ziurrenik, baina beste aukera batzuk ere izango dira. Goizerako, gaztetxoentzako pintura lehiaketa antolatu dute Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako haurrentzat. Mendaroko jaiak izango dute marrazketarako gaia, eta lan guztiak frontoian jarriko dituzte gero ikusgai. Ondoren, eguerdian, zezen txiki eta poniez gozatzeko aukera izango dute gaztetxoek Herriko Enparantzan, aurreko beste edizio batzuetan egin izan den antzera, eta ondoren, hala nahi dutenek, elkarrekin bazkalduko dute frontoian, herri bazkarian. Iluntzerako, eta danborrada amaitzen denerako, molto motorren lasterketa antolatu dute. Errekararren zubian egingo da, 19:00etatik aurrera. Orubete beranduago, berriz, playback gaztean lehiatuko dira herriko gaztetxoak.



UZTAILAK 29: ADINEKOEN EGUNA



Adinekoei eskainitako egunarekin amaituko dira santanak. Urtero moduan, mezarekin hasiko dute eguna, eta Mendaroko dantzariak urte osoan ikasitakoa jendeaurrean erakutsiko dute ondoren. Aizpe gastronomia elkartean egin ohi duten bazkaria eta iluntzeko erromeria ere ez dira faltako, baina zalantzarik gabe, arratsaldeko pilotajaiak izango da eguneko ekitaldi nagusia. 10 Bai taldeko pilotarien arteko partidaren ondoren, Mikel Goñi-Altuna bikotea eta Koka-Garmendia aurrez aurre ikusteko aukera izango da frontoian, sarrera ordainduta [Udaletxean eta Lagun Betikoak tabernan daude salgai txartelak]. Era berean, tren bat ere ekarriko dute Mendarora egun horretarako, eta 12:00etatik 17:00ak bitartean, herrian atzera-aurrera ibiliko da. Gauean, berriz, Katasorginari agur esateko bilduko dira mendarorrek plazan.



LANDA ERRETEGIA

*Ondo pasatu
jaietan !!*



Garagartza, 32 · MENDARO
☎ 943 75 60 28

m mendaro
ikastola

Kilimon,2
Tel.: 943 756 141

MENDARO
IKASTOLAKO
TXOKOLOREN
PARTEZ ONDO
PASA JAIAK!

TAXI

**Kontxi Urain
MENDARO**

Mobila:
607 575 728

Etxekoa:
943 755 052

**aitz
beltz**

ndo
pasa
jaixak!

Tel.: 943 530 284
Mendarozabal, 13 - 20850 Mendaro

**Mendaroko
Haurreskola**

943 755 219

Ondo pasa jaiak!

HaurreSkolaK

*Ondo pasa
jaiak!*

**TXIRRISTAKA
TABERNA**

Tel.: 943 75 61 39 (Mendaro)

AUTOZERBITZUA

ELKAR

Kilimon Hiribidea, 5 behea
Telf.: 943 53 00 72 - Fax: 943 53 00 73
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

TELLABIDE

ITURGINTZA

Azpilgoeta 7 behea - Mendaro
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062

Berogailuak
Gasa
Aire egokitua
Erregai likidoak

Mendaron zein Elgoibarren
ematen dugu zerbitzua

1962

Aste honetako erretratu zaharra Andres Egañak bidali digu BARRENEKO erredakziora. 1962. urtekoa da, Santa Ana jaietan ateratakoa, hain justu ere. Urte horretan egin zen lehenengo aldiz Mendaron nagusien danborrada, eta ordukoa da erretratua. Jose Antonio Egigurenek zuzendu zuen danborrada lehenengo urte hartan (bera da aginte makilarekin ageri dena), eta baita ondorengo beste askoan ere, eta Gregorio Vivesek hartu zion gero erreleboa. Ondorengo urte askoan Jose Antonio Egigurenen iloba Aitor Etxeberriak zuzendu zuen. Aurtan, beraz, 50 urte beteko ditu nagusien danborradak. Gaur egun, Josu Motriko eta Joseba Mendikutek zuzentzen dute nagusien danborrada.



Herri Gain


jatetxea

Idotorbeko errepidean, 1,5. Km.

Tel.: 943 743 040

*Datorren astetik aurrera, ostiraletan,
zapatuetan eta domeketan zabalduko dugu!
Asteaz, 10 lagunetik gorako taldeak
hartuko ditugu uztailearen 28tik aurreraplater
konbinatuak, razioak, ogitartekoak...*

Erreserbarako telefonoak: 943 743 040 / 618 058 757





SANTANAK 2012

25 EGUAZTENA

Santixao eguna

18:00 Txupinazoa, udaletxeko balkoitik. Mendaroko Abesbatzak botako du txupina..

Ondoren, Kalejira, Bizi Poza txarangarekin eta buruhandiekin.

18:30 Gazte Asanbladak antolatutako pala txapelketako finala, frontoian.

19:30 Salbea, Azpilgoetako elizan.

22:30 Nagusien danborrada.

Danborrada amaitzearekin batera, **Katasorgiñaren jaitsiera** udaletxetik.

00:15 Diskoteka REFEREE Dj-arekin.

26 EGUENA

Santana

10:30 Prozesioa Azpilgoetatik Santanara, txistulariekin.

11:00 Meza nagusia Santanan.

Ondoren Erromeria, Ostolaza eta Andonegi trikitilariekin. Bertsotan: Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña

18:00 Herri kirolak:

LOKOTX BILTZE TXAPELKETA: Egin beharreko lana: 50 lokotx bildu, 1,25 metro batetik bestera. Parte hartzaileak: Arkaitz Astiazaran Salegi, Eneko Garmendia, Zubeldia, Jon Larrañaga Gorrotxategi, Igor Rey Arrillaga, Gotzon Zulaika eta Jon Goikoetxea.

GIPUZKOAKO BIGARREN MAILAKO AIZKOLARI TXAPELKETAKO FINALA. Egin beharreko lana: 54"ko lau enbor (neurria, 1.252 metro enbor bakoitzak). 60"ko bi enbor (neurria: 1,391 metro enbor bakoitzak). Jon Irazu, Mikel Larrañaga, Unai Otaño, Jose Mari Telletxea, Xabier Zaldua eta Ugaitz Mugertza.

19:30 Dantzaldia: TRIKI TA KE.

21:00 Herri afaria, frontoian.

23:30 Dantzaldia: TRIKI TA KE.

27 BARIXAKUA

Umeen eguna

10:30 Txistularien kalejira.

11:00 Gaztetxoaren pintura lehiaketa, frontoian. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako haur guzientzako



lehiaketa da. Gaia: Mendaroko jaiak.

11:30 Jolas atrakzioak haurrentzat, Etxeberri plazan. (Eguraldi txarra egingo balu, ikastolako aterpean).

13:00 Zezen txiki eta poniak herriko plazan. Ondoren, **herri bazkaria**.

17:00 Jolas atrakzioak haurrentzat, Etxebarri plazan.

18:00 Haur danborrada, Bizi Poza txarangarekin.

19:00 Mo(l)to lasterketa Errekabarren zubian.

20:00 Playback gaztea eta pintura lehiaketako sari banaketa. Egan taldearekin plazan.

23:00 Dantzaldia, Egan taldearekin.

28 ZAPATUA

Koadrilen eguna

11:00 Goitibeheren aurkezpena.

Ondoren, Goitibeheren jaitsiera, Azpilgoetan.

11:30 Jolas atrakzioak haurrentzat, Etxeberri plazan.

12:00 Marmitako lehiaketaren hasiera frontoian.

13:00 Kalejira, Bizi Poza txarangarekin.

14:30 Txapel dunen herri bazkaria.

16:30 Koadrilen arteko jolasak.

17:00 Jolas atrakzioak haurrentzat

19:00 Kalejira, Debako elektrotxaranga perkusio taldearekin.

23:00 Gau dantzaldia Trikitio taldearekin.

00:30 Playback lehiaketa.

03:00 Diskoteka DJ Bullekin.

Ondoren, txokolatada eta gaupaseroen argazkia.

29 DOMEKA

Zahartzarolari omenaldia

10:30 Dultzaineroen kalejira.

12:00 Meza nagusia, frontoian.

Ondoren Euskal dantzak Mendaroko trikitixa taldearen eskutik.

12:00-17:00 Txutxu tren.

14:00 Bazkaria Aizpe elkarte.

17:30 Pilota jaialdia.

10 Bai elkarteko pilotariekin:

Kepa Arrizabalaga-Markel; Haritz Arribillaga-Iñaki Lazaro baster

Jaialdiko partida izarra:

Mikel Goñi-Altuna

Koka-Garmendia

Sarrerak salgai udaletxean eta Lagun Betikoak tabernan.

19:30 Erromeria Joselu Anaiak taldearekin. Udaletxeko arkupean txorizo pintxoak banatuko ditu Udalak.

Ondoren Katasorginaren igoera eta bukaerako traka.

Gaur izango da Nazioarteko Folklore jaialdia Olaizaga kiroldegian

Argentina eta Kurdistango dantzak taularatuko dituzte

Haritz euskal dantzari elkarteak antolatuta, gaur gauean izango da Nazioarteko Folklore jaialdia. Aurten, Argentina eta Kurdistango taldeak gonbidatu dituzte, eta herrialde horietako dantzak ikusteko aukera izango dute Olaizaga kiroldegira joaten diren herritarrek. Argentinako Gran Ballet taldea musika eta dantza argentinarren zabalpenean ari da buru-belarri 1963tik. Hango ohiturak, ezaugarriak, keinuak eta bestelako bereizgarriak erakutsiko dituzte. Kurdistango Sulaimaniyah taldea, bestalde, 1988an sortu zen lurralde hartako dantza, kanta eta musika zabaltzeko. Haritz dantza taldea, bestalde, 1973an sortu zuten, eta gaurko jaialdian Euskal Herri zabaleko folklorea hurbilaziko diete elgoibartarrei. Lizarrako larrain dantzarekin ekingo diote jaialdiari. Bigarren zatian Bizkaiko eskualde desberdi-



netako dantzak eskainiko dituzte, eta Arratiako jota eta porruarekin amaituko dute ikuskizuna.

Urritik ekainera arteko antzerki saioetarako bi sarrera zozketatu ditu Taupadak



Ekaineko azken zapatuko ferian zozketa berezia egin zuen Taupada Antzerki taldeak, eta Oier Alberdik jaso du saria. Horri esker, urritik ekainera Herriko Antzokian egingo diren antzerki emanaldietarako bi sarrera izango ditu. Aste honetan egin dute sari banaketa, eta Einsteinen esaldi bat ekarri dute gogora: "Krisi garaian sormena bakarrik da ezaguera baino garrantzitsuagoa". Taupadako Edurne Lasa eta Jose Mari Larrañaga, Kultura Batzordeko Amaia Txurruka eta Blanca Salegi teknikaria ageri dira erretratuan Oier Alberdirekin.

Gaur hasiko dira Maalako jaiak

Gaurtik domekara bitartean ospatuko dituzte Maalako jaiak, ingurune horretako tabernariek antolatuta. Pintxo Maala egitasmoa egingo dute gaur arratsaldean, eta gauean ZZ Blue taldeak kontzertua emango du Maalako parkean. Bihar gauean, bestalde, A santo de qué taldeak jarriko du musika giroa. Domekan, Madalena Egunean, meza nagusia eskainiko dute. Egitarau guztia agendan irakur dezakezue.

Sargoateko erromeria, uztailaren 29an

Datorren uztailaren 29an Sargoateko Erromeria ospatuko dute, Elgoibarko Udalak, Debemen Elkarteak, Elgoibarko Izarrak eta Sallobente elkarteak antolatuta. 11:00etan meza izango da, eta ondoren, salda eta txorizoa dastatzeko aukera izango dute hara biltzenez. Meabe eta Ziarda bertsulariek eta Xabier eta Ekain trikitilariek girotuko dute eguna, eta 12:00etan motozerra erakustaldia egingo du Jose Mari Esnaolak.

Akustika Gaua egingo dute hilaren 28an, Altzolan

Altzolako Zubibai elkarteak Akustika Gaua antolatu du hilaren 28rako. Rock Wheels taldeak kontzertua eskainiko du 20:00etan, eta segidan, herri afaria egingo dute. Gauean Javi Ruiz umoregileak *Umorea soka artean* ikuskizuna eskainiko du, elizako arkupeetan.

Hilabete honetan ez da azken zapatuko feriarik egingo

Hilabete honetan ez da azken zapatuko feriarik egingo. Hurrengo San Bartolome jaietako base-ritarren egunean egingo dute, eta irailtik aurrera ekingo diote berriro azken zapatuko feriarik.

IBON GABILONDO

Triatleta

Bederatzi denboraldi daramatza Ibon Gabilondok triatloian, eta datorren astean distantzia luzeko Munduko txapelketa jokatu du Espainiako selekzioarekin Gasteizen, uztailearen 29an: 4.000 metro igerian, 120 kilometro bizikletan eta 30 kilometro korrika. Gogotik entrenatu da, eta egun berezi hori iristeko irrikaz dago.

“Ikasi eta gozatzeko aukera paregabea izango da munduko txapelketa”

Espainiako selekziorako aukeratu izanak estatuko onenen artean zaudela esan nahi du. Zer sentitzen duzu?

Gauzak ondo esplikatu nahi ditut atal honetan. Munduko triatloi txapelketetan bi lehiaketa daude: batetik, elite mailako kirolariak daude, hau da, herrialde bakoitzeko lau edo bost kirolari profesional izaten dira normalean; mundu edo estatu mailan punta puntan dabilenak, alegia. Bestalde, Adinkako Taldeen txapelketa dago, adin eta generoaren arabera. Hor sartzen naiz ni. Mundu guztiko 35-39 urte bitarteko mutilen kontra lehiatuko naiz. Guztiok afizionatuak gara, eta maila bakoitzeko irabazlea munduko txapelketa izango da. Espainiako taldean hogeitau gaude. Iaz bosgarren egin nuen Espainiako txapelketako nire taldearekin, eta hala sailkatu naiz munduko txapelketarako. Garbi utzi nahi dut honek ez duela esan nahi Espainiako hogeitau triatleta onenen artean nagoenik, ezta gutxiagorik ere, baina tira, sailkatzea lortu nuen eta mundiala jokatzeko aukera eman dit.

Prestakuntza berezirik egin duzu munduko txapelketarako?

Urte hasieratik frogatzen izan da aurtengo nire helburua, eta proba fresko iristeko, apirilean eta maiatzean lasaia ibili naiz, denboraldia luzeegi ez egiteko, psikologikoki batez ere. Uste dut hiru kirolatan antzera moldatzen naizela; nahiko erregularra naizela. Munduko Txapelketaren ostean atsedena hartzea nahiko nuke!

Urte asko daramatzazu triatloien munduan, eta proba asko egin dituzue dagoeneko. Munduko txapelketa modu berezian bizi duzu?

Bai, jakina! Badakit horrelako aukerak gutxitan izango ditudala. Gustatzen zaidan kirola txapelketa garrantzitsu bat etxetik gertu... Aprobetxatu, ikasi eta gozatzeko aukera paregabea da, seguruenik errepikatuko ez dena. Egundik polita izatea espero dut, eta gogoz nago heltzeko.

Aita izan berri zara. Nola uzartzen dituzu familia eta triatloia?

Askotan behar nukeena baino lo gutxiago eginez, baina beti borondate handiz, eta garrantzitsuena, familiako laguntzarekin.



Zazpi jokalarirekin hasi du denboraldia Haundik

Gordobil entrenatzaileak hemezortzi jokalarirekin hasi du aurre-denboraldia

Aste honetan hasi du Haundik aurre denboraldia. Igor Gordobil entrenatzaileak hemezortzi jokalarirekin hasi du momentuz, eta horietatik zazpi aurten egini-ko fitxaketak dira: Gernika taldetik etxera itzuli den Andoni Gabilondo elgoibartarra, aurrez CD Elgoibarren jokatu izan duen Gaizka Melendez, Eibar B taldetik etorri diren Gayoso eta Del Olmo, Ondarroako Aurreratik iritsi den Jon Burgoa eta beheko taldetik igo diren Jorge Martinez eta Unai Cabo. Dena dela, jokalarire gehiago etor daitezke datozen asteetan, Haundiko entrenatzaileek hogeita bat edo hogeita bi jokalariko taldea osatu nahi dute-eta Hirugarren Mailari aurre egiteko.

laztik hona jarraitzen duten jokalariek, berriz, honakoak dira: Jorge Lope, Aitzol, Eneko Ormaetxea, Erik Polanco, Egoitz Zulaika, Aitor Bengoetxea, Kepa Osoro, Julen Landa, Imanol Rodriguez, Asier Larrea eta Barredo.



La Naranja Mecanica eta Guanedo taldeek jokatu dute Futbol 7 txapelketako finala



La Naranja Mecanica eta Guanedo taldeek jokatu dute Debarrenenoko Futbol 7 txapelketako finala, gaur, Eibarko Unbe futbol zelaian. Joan den astean jokatu zituzten final erdiak Elgoibarko lau taldek. Hortaz, finala ere elgoibartarren artekoa izango da. La Naranja Mecanicak 4-3 irabazi zion EGS taldeari, eta Guanedo eta Recreativo de Juerga taldeek bana berdindu zuten. Penalti jaurtiketan Guanedo taldeak irabazi zuen.

Bihar arratsaldean jokatu dute emakumezkoen pala txapelketako finala

10 Bai taldeak antolatutako emakumezkoen pala txapelketa iritsi da amaierara, eta bihar jokatu dute finala, 18:30ean hasita, Kalegoen plazan. Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete partidak ikustera agertu diren herritarrei, eta baita txapelketa antolatzen lagundu dutenei ere: Usua, Lanbroa, Jai-Alai, Iturri eta Armua.

Sigmako pilota txapelketako finala, bihar

Bihar jokatu ditzute Sigmako pilota txapelketako finalak, Eulogio Estarta elkarteak antolatuta. 11:15ean infantil mailakoek jokatu dute, 12:15ean bigarren mailako finala jokatu dute Beraza-Beñat eta Agirresarobe-Zubizarreta bikoteek. Final nagusian (13:00) Juaristi eta Zendoia azkoitiarrek Kepa eta Perea elgoibartarrak izango dituzte aurrez aurre. 12:00etatik aurrera mokadutxo egiteko aukera izango dute Sigmako frontoira joaten direnek.

45 ordutan amaitu zuen Edu Uribek Ehunmilak ultratrail proba

Edu Uribek 45 ordu eta 21 minutu behar izan zituen Ehunmilak ultratrail proba amaitzeko. Hotza eta euria izan ziren protagonista, eta 70. kilometrorako "mela-mela eginda" zegoela aitortu du Uribek, baina arropak aldatu eta aurrera jarraitzea erabaki zuen. Josu Mendikutek ere 168 kilometroko proban hartu zuen parte, baina hotzaren ondorioz laga egin behar izan zuen. Bestalde, Asier Arrietak eta Ignacio Perezek 88 kilometroko proba osatu zuten, hogei ordu eta 46 minutuan.



Mendiko argazki ikastaroa antolatu du Morkaikok

Morkaiko mendizale elkarteak mendiko argazki ikastaroa antolatu du irailerako. Hilaren 22an eta 23an eskainiko du tailerra Santiago Yaniz argazkilari profesionalak, eta eguraldiaren baitan, larunbat arratsaldez edo igande goizez irteera bat antolatuko dute, kamerarekin praktikak egiteko. Mendiko irudigintzan pasioa duten mendizale eta argazki zaleentzako ikastaroa izango da, eta taldea gehienez hogei lagunekoa izango da. Elkarteko bazkideek 70 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek, ehun euro. Informazio gehiagorako www.morkaiko.net.

Futbolari profesionalak entrenatzaile lanetan



Arg.: Aitor

Realeko jokalaria profesionalak izan zituzten entrenatzaile 2002tik 2004ra bitartean jaiotako umeek zapatuan. Markel Bergara eta Imanol Agirretxerekin batera, CD Elgoibarko Asier Larrea eta Andoni Gabilondok entrenamendu saio berezia egin zuten Mintxetan.

Bihar jokatuko dute Azkarateko Igoera

Maalako jaien barruan Azkarateko Igoera antolatu dute biharko. Maalatik Azkaratera bitartean 5,9 kilometroko distantzia dago, eta aurten ere korrika zein bizikletaz igotzeko aukera izango dute partaideek. Txirrundulariak 11:00etan irtengo dira Maalatik, eta korrikalariak, berriz, 12:00etan. Parte hartzeko sei euro ordaindu behar dira, Iriondo, Txariduna, Sua, Lanbroa edo Pilon tabernetan. Sari banaketaren ostean salda eta txorizoa banatuko dituzte antolatzaileek, eta kontsumizio tike-tak zozketatuko dituzte parte hartzaileen artean.

Larizek irabazi du Andutz mendi lasterketa, eta Gotzon Zulaikak bigarren egin du

Iñigo Larizek irabazi du III. Andutz Mendi Lasterketa, 23:16 denborarekin, eta Gotzon Zulaika mendararra sailkatu da bigarren postuan, minutu eta 39 segundora. Itziarko plazatik irten, Andutz tontorrean dagoen gurutzea ukitu eta berriz ere Itziarko plazara itzultzea zen lasterkariak egin beharrekoa, guztira 4,4 kilometro. David Conde elgoibartarra ere lehen hamarren artean sailkatu zen, bederatzigarren postuan, hain justu ere, 26:55 denborarekin. Guztira, 31 lagunek hartu zuten parte.



LANA

ESKAERA

- Mutil arduratsua lanerako prest. Orduka edo interno. ☎ **609 144 381**
- Emakumea lan bila. Umeak edo nagusiak zaindu, garbiketa lanak egin edo zerbitzari lanetarako prest. ☎ **686 052 084**
- Gizona lanerako prest. Zerbitzari eta zaintza lanetan esperientzia. ☎ **686 052 084**
- Emakumea orduka lan egiteko prest. Nagusiak edo umeak zaintzeko, sukaldari laguntzaile aritzeko... ☎ **608 474 923**
- Emakume euskalduna eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Urte askoko esperientzia daukat. ☎ **660 511 781**
- Gizona lan bila. Baserrian edo nagusiak zaintzen lan egingo nuke. ☎ **645 557 141**
- Gizonezkoa eskaintzen da tabernan zerbitzari lanak egiteko. Esperientzia eta erreferentzia onak. Paperak legez ditu. ☎ **671 442 693**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. Orduka. ☎ **689 436 454**
- Emakumea lan bila: umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketarako edo baserriko lanak egiteko prest. Paperak legez ditut. ☎ **627 230 784**
- Emakumea lanerako prest. ☎ **647 175 093**
- Emakumea lan bila: umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **630 372 882**

- Emakumea lan bila: umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. Esperientzia eta erreferentziak ditut. ☎ **636 419 814**
- DBH2ra arteko klase partikularrak ematen dira. Uztai-lean, goizez. ☎ **688 664 727**
- Gizonezkoa lan bila. Nagusiak zaintzen esperientzia. Elikagaiak eraldatzeko karneta daukat. ☎ **616 260 793**
- Emakumea lanerako prest. Sukaldari laguntzaile gisa, platerak garbitzen edota bestelako edozein garbiketa lan egingo nuke. Asteburuetan ere bai. ☎ **699 609 190**

ESKAITZA

- LH4ko ume bati klase partikularrak emateko pertsona bat behar da. ☎ **628 524 420**
- Pertsona bat behar da klase partikularrak emateko, Mendaroko etxe batean. LH6 eta DBH3 mailak, 2012-2013 ikasturterako. ☎ **695 730 442**
- Mendaroko DBHko ikasle bati klase partikularrak emateko pertsona bat behar dut. Irailtik aurrera. Pedagogian lizentziatua izatea baloratuko da. ☎ **638 713 686**

ETXEBIZITZAK

- Hiru logelatako etxea salgai Basarten. Garajea eta trastelekuarekin. Etxe berria, argitsua. Alokairuan ere jarriko nuke, geroago erosteko aukerarekin. Prezio ezinhobea. ☎ **675 676 129**

- Gizon euskaldunak etxea hartuko luke alokairuan. Gela batekoa edo bikoia, San Roke edo Urazandi auzoetan. ☎ **676 918 922**
- Etxea alokairuan Elgoibarren, Ubitarte kalean. Bi logela (lau ohe), egongela, sukalde-jangela. Berritua. ☎ **943 742 442**

BESTELAKOAK

- Mintzetako hamakak gordetzeko gelatik nire aulkia hartu du norbaitek. Granate kolorekoa da eta Izaro E. jartzen du atzeko aldean. Hartu duenak, mesedez, itzuli dezala bere lekura.

KINTOAK

- 1972an jaiotakoek kinto bazkaria egingo dute irailearen 15ean, Sigma jatetxean. Elgoibarren jaiotakoak eta hemen bizi direnak daude gonbidatuta. 13:00etan argazkia aterako dute bolatokian, ondoren luntxa jango dute eta gero bazkaria egingo dute. Interesatuak Euskadiko Kutxako kontu korronte honetan sartu behar dute dirua, abuztua baino lehen: 3035 0007 22 0071124579

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€**. Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.

- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **12€** (alokairua) - **15€** (salmenta). Autoak saltzea: **12€**. Bestelakoak: **6€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49 - I

Tel: 943 741 189



MEKANOSA

Errosario, 27

Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



• Zorionak, **Erika**, zure bigarren urtebetetzean. Etxekoan partez.




• Azkenean irisi da! Igarri orduko esku guztia bete duzu, pirata! Txokomarrubizko muxuak, denon partez.



• Zorionak, **Garazi**, abuztuaren 2an 8 urte egingo dituzulako. Muxu bat, etxekoan partez. Maite zaitugu.



• Zorionak, **Iruñe**. Ondo pasa zure 5. urtebetetzean, abuztuaren 5ean. Patxo handi bat, etxekoan partez.



• Zorionak, **Ibon**, 10 urte handi beteko dituzulako hilaren 23an. Ondo pasa, eta muxu bat, etxekoan partetik.



• Zorionak, **Aner eta Eneko!** Ondo-ondo pasatu zuen laugarren urtebetetze eguna. Patxo pila bat, denon partez.



• Zorionak, **Nerea**. 7 urte egingo dituzulako. Etxekoan, eta bereziki, Ander, Paula, Sara eta Leireren partez. Muxu!



• Zorionak, **Leire**, hilaren 26an 2 urte egingo dituzulako. Familiakoan eta bereziki Ander eta Nerearen partez.



• Zorionak, **Enaitz**, zure hirugarren urtebetetzean. Familiakoan partez.



• Zorionak, **Markel eta Paula**. Muxu potolo bat eta belarririk lau tirakada. Vega eta Luciarene partez.



• Zorionak, **Aimar eta Oihan!** Abuztuaren 10 eta 11n urteak egingo dituzelako. Etxekoan partez.



• Zorionak, **Nahia**, zure bigarren urtetxoa bete duzulako. Familiako guztien eta bereziki Naroaren partez.



• Zorionak, **Intza**, uztailearen 30ean 5 urte egingo dituzulako. Muxu potolo bat, familiako guztien partez.



• Zorionak, **Mikel**, hurrengo astelehenean 3 urte beteko dituzulako. Segi horrela.



• Azkenean iritsi da eguna, **bikote!** Oso ondo pasa dezazuela eta izan zaitzetezela zoriontsu eta pa berri honetan. Muxuak, familiakoan partez.



• Zorionak, **Haizea eta Urtzi**, uztailearen 29an 6 urte egingo dituzelako. Muxu bat, familiakoan, eta bereziki, amamaren partez.



• Zorionak, **txapeldun**, laster 5 urte egingo dituzulako. Muxu, etxekoan, eta bereziki Lara eta Nastiarene partez.



• Zorionak, Mikel eta Amanda. Izan zoriontsu!



• Zorionak, **bikote!** Ondo pasa zuen ezkontza egunean, guk ere hala egingo dugu-eta! Muxu handi bana, koadrilakoan partez.



• Hilaren 24an 30 egingo dituzue. Ederki ospatu ditugu dagoeneko. Eskerrik asko. Zorionak, eta beste urte askotarako.



• Zorionak, **María** printzesa, gaur 5 urte! Muxu potolo bat gurasoen eta bereziki ahizpa Eleneren partez.




• Zorionak, **Julen eta aitabxo**, zuen lehen eta 34. urtebetetzean. Familia guztiaren partez, eta, bereziki, Iratiren partez. Muxu handi bana!



• Zorionak, **Oihan eta Elene!** Asteazkenean 3 urte potolo egin zenituzten-eta! Ilargiraino eta buelta maite zaituztegu.



• Zorionak, **Leire eta Jone**, zuen bederatzigarren eta seigarren urtebetetzeagatik. Muxu asko, familiakoan partez.



• Zorionak, **Lihor**, Ederki pasatu zure bigarren urtebetetzean. Muxu potolo bat, etxekoan partez.

20 barixakua

Dantza

22:30 Folklore Jaialdia

Haritz dantzari taldeak antolatuta, Olaizaga kiroldegian.

22 domeka

Irteera

10:00 Altzola ezagutzeko irteera

Zubibaik antolatuta, Altzolan.

28 zapatua

Akustika gaua

20:00 Wheels rock taldearen kontzertua

Zubibaik antolatuta, Altzolan.

Ondoren, afaria

22:30 Umorea soka artean

Javi Ruiz umoregilearen saioa, Altzolako elizako arkupean.

29 domeka

Sargoateko erromeria

11:00 Meza

12:00 Salda eta txorizoa

12:30 Bertsolariak eta trikitilariak

13:00 Auzokoen zaldi lasterketa.

31 martitzena

Dantzaldia

18:30 Eguren orkestra

Maalako parkean.

MAALAKO JAIK

UZTAILAK 20, BARIXAKUA 10:50 Kanpai-jotzea 19:00 Pintxo-Madala 22:00 ZZ blues taldea, Maalako	parkean. UZTAILAK 21, ZAPATUA 11:00 Azkarateko Igoera bizikletan 12:00 Azkarateko Igoera korrika	13:00 Sari banaketa Ondoren, txapliguak eta kalejira 15:00 Mus eta xake txapelketa 22:00 A santo de qué taldearen	kontzertua, Maalako parkean. UZTAILAK 22, DOMEKA 12:30 Meza nagusia, Maalako elizan.
---	--	--	---

SALLOBENTEKO JAIK

ABUZTUAK 3, BARIXAKUA 19:00 Kanpai-jotzea 19:30 Errosarioa eta meza Ondoren, bakailao jana Afalostean, Lizaso eta Peñagarikano bertsolariak	23:00 Bolo saioak 23:30 Erromeria, Larreategi taldearekin ABUZTUAK 4, ZAPATUA 16:30 Haur jolasak Ondoren, zezentxo eta pottokak Jarraian, txokolate jana 22:30 Bolo saioa	23:00 Bolo saioa Gauerdian, bolo txapelketa ABUZTUAK 5, DOMEKA 11:00 Meza Ondoren, salda eta txorizoa 12:30 Sagardo dastaketa 14:30 Bazkaria 18:00 Herri kirolak	20:00 Emakumeen bolo txapelketa 22:00 Bolo saioa 23:00 Erromeria, Baltzola anaiekin ABUZTUAK 10, EGUENA 11:00 Meza Ondoren, salda eta txorizoa 12:30 Pilota partidak
--	---	---	--

SANTUMOTZ JAIK

ABUZTUAK 5, DOMEKA 11:00 Meza, Santumotz lautadan	Ondoren, salda eta txorizoa Segidan, Peñagarikano eta Mendiluze bertsolariak	14:30 Bazkaria, San Pedro jatetxean. Izena emateko: 943 740 010	Ondoren, bertsolariak, eta iluntzera arte, erromeria
---	---	---	--

SAN ROKE JAIK

ABUZTUAK 15, EGUAZTENA 17:00 Kanpai jotzea eta txupinazoa 20:00 Errosarioa, auzoko basilizan 21:00 Afaria ABUZTUAK 16, EGUENA 8:00 Suziriak	11:00 Meza Ondoren, Haritz dantza taldearen emanaldia Jarraian, txinga lehiaketa 18:00 Haurrentzako jolasak eta untxi askatzea Ondoren, zezentxoak eta	poniak 22:30 Erromeria, Baltzola anaiekin 24:00 Hiru Txirto jaurtiketa ABUZTUAK 17, BARIXAKUA 8:00 Suziriak 11:00 Meza Ondoren, txapel jaurtiketa	Segidan, untxi askatzea 14:00 bazkaria 18:00 zaldi proba Ondoren, zezentxoak eta poniak 22:30 Erromeria 01:00 Zozketa
--	--	--	--

AIRE LIBREKO ZINEA, PLAZA HANDIAN

«Rango»
21, barixakua: 22:30

«Los juegos del hambre»
22, zapatua: 22:30

«Cowboys&Aliens»
27, barixakua: 22:30

«The wish fish»
28, zapatua: 22:30

«La pesca de salmón en Yemen»
29, domeka: 22:30

«Chico&Rita»
30, astelehena: 22:30



FARMAZIAK

BOTIKA ORDUTEGIAK:
9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK UZTAILA

Egunez	Gauetz	
9:00 - 22:00	22:00 - 9:00	
20	Zabaleta	Garitaonandia
21	Barrenetxea	Barrenetxea
22	Barrenetxea	Barrenetxea
23	Ibañez	Etxeberria
24	Garitaonandia	Garitaonandia
25	Etxeberria	Etxeberria
26	Barrenetxea	Barrenetxea
27	Yudego	Yudego
28	Zabaleta	Barrenetxea
	Goizez: Etxeberria	
29	Zabaleta	Barrenetxea
30	Barrenetxea	Barrenetxea
31	Garitaonandia	Garitaonandia

GUARDIAK ABUZTUA

Egunez	Gauetz	
9:00 - 22:00	22:00 - 9:00	
1	Yudego	Yudego
2	Barrenetxea	Barrenetxea
3	Fernandez	Barrenetxea
4	Yudego	Yudego
5	Yudego	Yudego
6	Zabaleta	Yudego
7	Barrenetxea	Yudego
8	Ibañez	Barrenetxea
9	Yudego	Yudego
10	Barrenetxea	Barrenetxea
11	Barrenetxea	Barrenetxea
12	Barrenetxea	Barrenetxea
13	Yudego	Yudego
14	Zabaleta	Yudego
15	Barrenetxea	Barrenetxea
16	Ibañez	Etxeberria
17	Garitaonandia	Garitaonandia
18	Etxeberria	Etxeberria
19	Etxeberria	Etxeberria
20	Fernandez	Garitaonandia
21	Garitaonandia	Garitaonandia
22	Zabaleta	Etxeberria
23	Etxeberria	Etxeberria
24	Ibañez	Garitaonandia
25	Garitaonandia	Garitaonandia
26	Garitaonandia	Garitaonandia
27	Etxeberria	Etxeberria
28	Fernandez	Etxeberria
29	Garitaonandia	Garitaonandia
30	Zabaleta	Garitaonandia
31	Etxeberria	Etxeberria

GUARDIAK IRAILA

Egunez	Gauetz	
9:00 - 22:00	22:00 - 9:00	
1	Zabaleta	Barrenetxea
	Goizez: Etxeberria	
2	Zabaleta	Barrenetxea
3	Garitaonandia	Garitaonandia
4	Etxeberria	Etxeberria
5	Fernandez	Barrenetxea
6	Yudego	Yudego
7	Zabaleta	Yudego

OKINDEGIAK

UZTAILA

22 domeka EIZAGIRRE
29 domeka FOTERO
31 martitzena IBARRENEA


ABUZTUA

24 barixakua EIZAGIRRE
26 domeka EIZAGIRRE

IRAILA


2 domeka EIZAGIRRE
9 domeka FOTERO





Oporretara goaz!!
Ondo pasa oporretan eta
IRAILAREN 10EAN
ikusiko dugu berriro elkar.

Igande honetan **agur festa** gaztelekuan,
17:00etatik aurrera.
IRAILAREN 11N itzuliko gara berriro.
Ondo pasa oporrak.



OHARRA

Abuztuaren 23an jasoko duzue San Bartolome jaietako ale berezia, eta irailaren 3an hasiko gara lanean berriro. Abuztuaren **BARRENEKO** erredakzioa itxita egongo da.



Herrira Eguna



Bazkari herrikoia abuztuaren 23an

**13:00etan txupinazoa plazan
eta ondoren triki poteoa.**

**15:00etan bazkari herrikoia Maalako parkean.
Abeslariak egongo dira.**

**Tiketak uztailaren 15etik aurrera salgai
Jai Alai, Iturri eta Lanbroan
Salneurria 18€ langabetuek 15€**



Herrira